



**Nagusiak martxan.**- Eguraldi paregabeari etekina atera zioten hainbat bikotek larunbat goizean, Nagusien omenaldiaren baitako martxa erregulatuan hartu baitzuten parte. Gauzak horrela, bezperako ibilbide osasungarria ez egitearen arantzatxoa atera zuen batek baino gehiagok. Okendo plaza izan zuten abiapuntu eta helmuga; 9:30ean atera ziren banan bana, eta ordu erdi inguru behar izan zuten ibilbidea burutzeko. Herrian zehar aritu ziren bikoteak pasean, Ostadar SKTko hainbat kideren laguntza eduki zutelarik. Ibilbidea zuzen egiten lagundu zuten Ostadarrekoek. Helmugara iristean Freixenet xanpain botila bat eta txorizo ogitarteko bana jaso zuten parte hartzaile guztiek. Hainbat sari ere zozketatu zituzten; irabazleek Aterpeako dendatan erabiltzeko diru-bonuak jaso zituzten kartazal batean. Bien bitartean, Jesus Zaballos alkateak eta Lourdes Acevedo Gizarte Zerbitzuetako buruak hiru sari nagusiak eman zituzten Okendo plazan bertan.

## 2 KULTURA

### Gaur hasiko da Semblante Andaluzen Aste Kulturala

Jai-giroa izango da nagusi gaurtik hasi eta ostegunera bitartean Golf plazan. Egoitzako ateak ireki eta andaluziar kultura kalera aterako du Semblante Andaluz elkarteak. Ekitaldiz betetako astea izango da honakoa, XIII. Aste Kulturala ospatuko baitute aurten. Herri-tarrak ekintzetan parte hartzera gonbidatzen ditu elkarteak.

## 5 AURKEZPENA

### Jakoba Errekondoren eskutik baratzea zaintzeko aholkuak

'Bizi baratzea' izeneko liburua idatzi du Jakoba Errekondo usurbildarrak, eta asteazkenean aurkeztuko du Manuel Lekuona kultur etxean, arratsaldeko zazpitan. Baratzeak sortu eta zaintzeko jarraibideak ematen ditu Errekondok bertan. Urriaren 17an ospatuko den Euskal Jaia eta Topa Egunearen aurrekarietako bat da aurkezpena.



ARGAZKIPRESS

## 8 EUSKARA

### Topaguneko Jasone Mendizabalekin solasean

2001. urtetik Euskaltzaleen Topaguneko zuzendaria da Jasone Mendizabal. Aurtengo Topa Eguna Lasarte-Orian ospatuko da urriaren 17an, Topaguneko berak eta Ttakun Kultur Elkarteak elkarlanean antolatuta. Ospakizun egun hori hobeto ezagutze aldera, luze eta zabal jardun du TXINTXARRI-k Mendizabalekin.

Egin iezaiezu  
SCHOOL VISUAL TEST-a  
zure haurrei

ARRASATE • BEASAIN • BERGARA • DONOSTIA • ERRETERIA  
EIBAR • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

Kontsulta itzazu zure zentroan kanpainaren ezaugarriak.  
Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

www.multiopicasgipuzkoa.com

Kale Nagusia, 15  
Tel.: 943 37 74 55  
LASARTE

MULTIÓPTICAS

lehena zerbitzu optikoetan



## ASTE KULTURALA

# Andaluziar kultura kalera aterako da

## Semblante Andaluz elkarteak XIII. Aste kulturala ospatuko du Golf plazan

Gaur hasi eta urriaren 12ra arte, jai giroa nagusi izango da Golf plazan. Sevillanak, fandangoak... Semblante Andaluz elkarteak atek ireki eta andaluziako kultura kalera aterako du. Ekintzaz betetako astea izango da, non elkarteko taldeek presentzia izango duten.

**S**emblante Andaluz elkarteak Andaluziako kultura kalera aterako du XIII. Aste kulturalan. Izan ere, ekintza gehienak, bazkariak izan ezik, Golf plazan antolatuta baititu elkarteak.

### Agurra eta txapelketak

Gaur 20:00etan, emango zaiei hasiera ospakizunei. Elkarteko lagun, agintari eta gonbidatuak batu eta aste kulturalari hasiera emango diote ohorezko ardoarekin.

Honetan ez da ez jana, ezta jai giroa faltako. Luntxa "Semblante Rociero" koruaren abestiez girotua baita. Elkarteko dantza taldeak ere bertan izango dira haien 'arte' erakutsiz.

Astearte, asteazken eta ostegunean berriz, karta-txapelketen txanda izango da, musa, tutea eta zintilloa hurrenez hurren. Guztiak 19:30ean hasiko dira

### Asteburua ekintzaz betea

Ostiralean, 20:00etan hasiko dira ekitaldiak. Elkarteko Amigos del Sur taldeak emanaldia eskainiko du eta andaluziar menua duen afaria eskainiko da Golf plazan.

Ostean, nahi duenak gorputza dantzan jarri ahalko du dantzaldian.

Larunbatean, eguerdian, pote lehiaketarekin hasi

Lehiatu nahi ez dutenek, 12:30etik aurrera, Golf plazako barran pintxo-poteaz gozatzeko aukera izango da.

Arratsaldean, dantza eta musika izango dira nagusi.

17:00etatik aurrera, sevillanak dantzatu ahalko dira plazara hurbiltzen direnak.

19:00etan, Zambra taldeak dantza egin eta 20:00etan, Genaro "El Ruiseñor de la Mancha" flamenko-kantariak, "Manolo Badajoz" gitarrarekin lagun duela, emanaldia eskainiko du.



Aste honetan zehar, nagusiki Semblante Andaluz elkarteko dantza eta kantu taldeak izango dira Golf plazako ohoztan.

Ostean, dantzaldi herrikoia dago.

Igandean, 13:00etan, elkarteko gazte eta haurren dantza taldeen txanda izango da. Gitanillos del Alba eta Duende Flamenco dantza taldeak igoko dira ohoztara.

Jarraian, berriro ere, Genaro "El Ruiseñor de la Mancha" flamenko-kantaria entzuteko aukera izango da eta 14:30ean, paella gozoa dastatuko dute elkarteko egoitzean egingo den bazkari herrikoian.

Haurrentzako jolasak izango dira, 17:00etan eta

hauek amaitzean, txikiak txokolatea txurroekin jango dute.

19:30ean, "Semblante Rociero" koruaren ahotsek alaituko dute plaza eta ostean, dantzaldi herrikoia dago.

Astelehenean, urriaren 12an, amaituko dira ekintzak.

Azken egun honetan, elkarteko dantza taldeek hartuko dute ohoztza.

13:00etan, Gitanillos del Alba eta Duende Flamenco dantza taldeak izango dira eta arratsaldean, 19:00etan, Zambra taldea.

14:30ean, babarrun jana dastatuko dute.

19:30ean, berriz, lehiaketeta saribanaketa eta zozketa egingo da.

Azkenik, 21:00etan, salbe rozieroarekin emango zaio amaiera ekitaldiei.

Ostiraletik astelehenera, gainera, Andaluziako produktuak dastatu ahalko dituzte herritarrek plazan jarriko den barran.

Hau guztiaz gain, aste osoan zehar "Oporrak 2015" argazki lehiaketa-erakusketa izango da martxan.

## Irakurle txokoa urriaren 20an martxan

**U**rriaren 20an abiatuko da Irakurle Txokoaren ikasturte berria. Maiatza bitartean hainbat irakurketa eta idazlearekin solasaldietan parte hartzeko aukera izango dute kideek. Saio guztiak Manuel Lekuonan 18:30ean izango dira.

Lasarte-Oriako irakurle txokoak badiu ezaugarri berezi batzuk taldeko sustatzaileek adierazten duten modura, "euskarazko literatura irakurtzen dugu, euskaraz sortu dena edota beste hizkuntza batzuetatik euskarara itzuliak direnak. Literaturaz gozatzearrekin bate-

ra, euskara eta euskal kultura indartzea eta euskararentzako arnas gune berri bat sortzea ere bazen gure helburua. Herritarren bilgune berri bat euskaraz jardungo duena, euskara erdigunean jarriko duena".

Uxue Alberdi jardun da aurreko bi ikasturteetan Irakurle Txokoa gidatzen eta hala izango da ere aurten nahiz eta azken zatian Danele Sarriugar tek ordezkatzeko duen.

"Euskal herria txikia denez, euskaraz idazten duten idazleak esku eskura ditugu eta horretaz ere baliatzen gara. Bi

saiotik behin idazlea ekartzen dugu solasaldira".

Sustatzaileek animatzen dituzte herritarrek hitzordu hauetara gerturatzeko, "edonor etor daiteke, baita liburuak irakurri ez duen herritarra ere. Urte guztian saio bakar batera etor badaiteke ere beti dira ongi etorriak guztiak".

### Irakurgaiak

Ikasturterako liburuak hautatu dituzte eta hauek irakurtzen has daitezke herritarrek. Horrela izanda, urriaren 20ean Sofi Oksanen "Gar-




biketa" lana aztertuko da, azaroaren 17an "Ni, Vera" Itxaso Martin idazlearekin, abenduaren 15ean Iolanda Zuñigaren "Post-it bizitzak" eta urtarrilaren 26an Marisol Bastidarekin "Mikel Laboaren memoriak" lanaz hitz egin ahalko da.

Otsailaren 16an Katixa Agireren "Atertu arte itxaron" lana

landuko da eta martxoaren 22an Josu Martinez izango da "Tunelak, izarrak, moztarrok eta bafleak" lanarekin. Apirilaren 19an Eduardo Galeanoren "Ispiluak" eta "Hitz ibiltariak" eta azken saioan, maiatzaren 17an, "Hauts haietatik" lanaren inguruan ariko dira Unai Villenarekin.

### Diruz laguntzen duten erakundeak

#### Babeslea



LASARTE-ORIA  
UDALA

Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

#### Laguntzailea



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAIALA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



GFAko Kultura eta  
Euskara Departamendua

#### Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarte

Geltoki kalea 4

20160 Lasarte-Oria

943 366 858/943 371 448

G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93

ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

#### txintxarri

#### Erredakzioa:

Maidor Azurmendi, Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez.

txintxarri@txintxarri.info

publizitatea@ttakun.com

#### Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Maidor Seguro, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Edu Galardi

#### Informatikoa:

Xabier Amador



## UDALA

# ITA gardentasun ikuskaritzaren emaitzak

## 80 puntutik 13 lortu ditu Udalaren webguneak

**Transparencia Internacional España erakundeak Lasarte-Oriako Udaleko web orrialdea aztertu eta gardentasun ikuskaritza egin du, udaletxeak berak eskatuta. 80 adierazle osoatutako zerrenda baten arabera ikuskatu du Udalaren web orrialdea; 13 puntu eman dizkio 80tik.**



Ikuskaritzaren emaitzak plazaratu zituzten udal ordezkariak pasa den ostegunean.

## TXINTXARRI

Udaletxeek zenbaterainoko gardentasuna duten ikuskatzen du TIE erakundeak bi urtean behin, web orrialdeak oinarri gisa hartuta. Nazio mailako 110 udaletxe aztertu zituen iazko martxoan, probintziako hiriburuak eta hiri populatuenetako batzuk hain zuzen. Doakoak dira ikuskaritza horiek.

Aztertua izan nahi duen udalerririk ere badu aukera ikuskatua izateko; eskaera hori bera egin du Lasarte-Oriako Udalak aurtan, eta jaso ditu emaitzak jada. 80 puntutik 13 jaso ditu udaletxearen webguneak.

Pasa den asteko ostegunean agerraldia egin zuten Jesus Zaballos alkateak eta Lourdes Acevedo Gardentasun saileko buruak, ikuskaritzaren emaitzak plazaratu

eta legealdian zehar esparru horretan landu beharrekoari buruz aritzeko.

“Lasarte-Oriak ez du ikuskaritza gainditu, argi eta garbi gainera. Lan asko dugu egiteke alor horretan baina konpromiso irmoa dugu, alderdi sozialista izan zen hauteskunde-programan gardentasunari batzorde bat ematea proposatu zuen bakarra”.

Hasi berria den legealdian amaierarako erronkak ere finkatu dituzte: “Ikuskaritza gainditzeko moduan egon nahi dugu legealdi amaieran, 80tik 40 puntu atera gutxienez”.

### Etorkizuneko lanketa

Alkateak iragarri zuen udal taldeari buruzko atal berezitu bat sortu nahi dutela: “Nortzuk garen azaldu nahi dugu,

telefono eta helbide elektronikoak eskura jarri, kurrikularen berri eman, errenta eta ondasunen aitortpena, baita gure soldatak zenbatekoak diren”. Era berean, aurreratu zuen web orrialdea moldatzeko asmotan dabilzala; bildu dira dagoeneko Gipuzkoako Diputazioaren baitako IZFE Informatika Zerbitzu Foru Elkartearekin.

“Herritarrak etorri daitezke udaletxera eta behar duten informazio guztia eskatu, hala bermatzen baitu legeak. Dena dela, gai izan behar dugu datu horiek denak eskaintzeko web orrialdearen bitartez, lasarteoriarrek nahi dutenean eskura izan dezaten”, zehaztu zuen Zaballosek.

2016. urtean ikuskatuko ditu berriro TIE erakundeak udaletxeen web orrialdeak.

## ENPLEGUA

## Langabeak kontratatuzko laguntzak

Donostia-Berri bilarako Udalek, enplegua sustatzeko asmoz, langabetuak kontratatuzko diru-laguntzak dituzte martxan. Tokiko enpresei zuzenduta dago laguntza lerroa eta bilarako langabeak eta lan-eskatzailer moduan Lanbiden inskribatutakoak kontratatzea du helburu. Enpresek diru-laguntza honen onuradun izateko Lasarte-Oriako Lanbideko bulegoetan lan-eskaintza zehatza aurkeztu beharko dute eta Lanbideko proposatutako izengaien artean egin hautapena.

3.000 euroko gehienezko laguntza, 3 hilabete iraungo duen lanaldi osoko kontratuko eta 6.000 euroko gehieneko laguntza, 6 hilabete edo gehiago iraungo duen lanaldi osoko kontratuko izango da. Diru laguntzak gehikuntza izango du 55 urtetik gorako iraupen luzeko langabetuak kontratatzeagatik.

Eskaerak 2016ko martxoaren 31 arte egingo dira Andoaingo Udalaren Sustapen ekonomiko, enplegu eta Gazteria Saileko bulegoan. Gurean argibideak [lasarteoria.eus](http://lasarteoria.eus) weban edota Dionisio Ávila udal teknikariarekin 943 376 179 telefonoan edo [d.avila@lasarte-oria.org](mailto:d.avila@lasarte-oria.org) helbidean harremanetan jarri.

## UDALA

## Gizarte zerbitzuetako laguntzak

Azaroaren 2ra arte herriko elkarteek Zerbitzu Sozialen arloan diru-laguntzak eskatzeko aukera edukiko dute. Interesa dutenek eskaera egin beharko dute lehenengo, eta udaletxeko erregistro orokorrean entregatu ondoren. Udalak jakinarazi du 17.320 euro bideratuko direla aurtan laguntza horietara, eta elkarte bakoitzak gehienez 2.800 euro jaso ditzakeela.

## SOLASKIDE

## Ikasturte hasierako afaria

Ostegunean Arrieskalleta elkarteak emango diote solaskide egitasmoa kideek hasiera ikasturteari. 20:30ean izango da hitzordua. Honekin kanpaina berria abiatu eta egitasmoaren aurkezpena egingo dute. Solaskideek izena Ttakunen edo [solaskide@ttakun.com](mailto:solaskide@ttakun.com) eman behar da asteleazkena baino lehen.

## PLAZA DANTZA

## Ikasturte hasiera bihar

Plaza dantza saioak bihar hasiko dira. Aurreko ikasturtean bezala, asteartean aurretik dantzatu dutenen taldea 20:00tik 21:30era elkartuko da Sasoetako gimnasioan Dabid Egizabalekin. Eskaerari erantzuna emanez, arin-arina, fandango, agurra, larrain dantza eta muxikoak tartekatuko dituzte. Asteazkenetan hastapeneko taldearen txanda izango da leku eta ordu berean Jabier Fernandez de Lezearekin. Muxikoen lanketan oinarrituko da hau. Izena ematea Ttakunen edo 943 371 448 telefonoan egin behar da.

## Maketa lehiaketa berria abian

Maketa lehiaketa berria Meta aurreko edizioako irabazleak jakitera eman zituzten udal ordezkariak. Gaztelekuan egindako agerraldian Jesus Zaballos oso pozik azaldu zen egitasmoak izandako harrerarekin izan ere, “beharrezkoa da musika sustatu eta talde berrien lana aitortzeko halakoak martxan jarzea”.

Txus Alonso zinegotziak esan zituen 7. edizioaren irabazleak. Aurtengoan Logroñoko ‘Funny Roman Numbers’ taldea izan da garaile. Guztira 18 lan aurkeztu ziren eta horien artean herriko ‘Gabezia’ taldearentzat izan da Lasarte-Oria saria. Aldi berean, Euskaraz sariari dagokionez, esleitu

gabe geratu da, aukera zuen talde bakarra iazko lehiaketako irabazlea izan zelako.

Epaimahaiari Carlos Maestre manager eta ekoizle musikala, Karmen Salazar abeslaria, Jokin Telleria kultura kudeatzailea, Xabier Goitia Manuel Lekuonako kudeatzailea eta Rosa Illarramendi Gazteak eta Jaiak ataleko teknikaria izan dira. Irabazleen lanak entzungai daude [lasarteoriasarean.eu](http://lasarteoriasarean.eu) webgunean.

### 8. edizioan izena eman

Bestalde, 8. edizioa martxan dagoela adierazi zuten. Taldeek urriaren 30a bitartean izango dute aukera sari honetara aurkezteko.

Oinarriak ezartzen dutenez, formatu komertzialean



Logroñoko Funny Roman Numbers taldea izan da aurtengo irabazlea.

materialik editatua ez daukaten taldeek edo bakarlariek parte hartu ahalko dute. Lehenagoko edizioetan irabazle izan direnek ezingo dituzte beren lanak aurkeztu.

Parte-hartzaileek hiruna musika-pieza aurkeztu beharko dituzte, horietatik bi behintzat jatorrizkoak, eta MP3 formatuan bidali beharko dituzte.

Pieza bakoitzak, gainera, gutxienez hiru minutuko iraupena izan beharko du. Artiboak [musika@lasarteoriasarean.eu](mailto:musika@lasarteoriasarean.eu)-ra bidali behar dira.

Sarien kategoriei dagokionez, 1.000 euro izango dira maketa irabazlearentzat, 700 euro Lasarte-Oria sariarentzat eta 500 euro Euskara sariarentzat. Herriko talde gisa parte hartuko bada, taldeki-deen % 50ek gutxienez Lasarte-Orian errolatuta egon beharko dute.

Azkenik, maketa batek ezingo du saria bi kategoriatan eskuratu.

Oinarriak webgunean daude eskuragarri.

Herriko talde berriei honetan parte hartzeri animatu zituzten agerraldian.





Isla Plazan hainbat jokorekin dibertitu ziren, igelarekin esaterako.



Ostegun arratsaldean ekin zieten ospakizunei herriko adineko pertsonak, banderaren altxatze ekitaldiarekin.



Dantza lehiaketaren ostean denek batera astindu zituzten gorputzak.



Bapo bazkaldu zuten atzo Michelingo frontoian.

## Nagusien omenaldia, ekintzaz betetako astea

Biyak Bat koruak emanaldia eskainiko du gaur

**Gaztetasun fisikoa ez, baina psikologikoa mantendu daiteke urteak pasa ahala. Herriko adineko pertsonak gazte ere badirela erakusten ari dira astean zehar, Nagusien omenaldiaren baitan prestatu dituzten ekintza guztietan gogotsu parte hartuz. Dantza lehiaketa, martxa erregulatua, bazkari jendetsua... Iritsi dira ospakizunen ekuatore-ra; ostegunean amaituko da omenaldiaren astea.**

TXINTXARRI

**P**asa den osteguneko bandera altxatze ekitaldiak eman zion hasiera ekintzaz betetako asteari, Nagusien omenaldiari hain zuzen ere. Iritsi dira ospakizunen ekuatorera, asteburu mugitu baten ostean. Emanaldia eskainiko dute Biyak Bat eta Nagusilan koruek

gaur arratsaldean, 18:30ean, Brigitarren komentuan.

Ostegunean bukatuko da aurtengo nagusien omenaldia, eta egun horretan hasi zen, pasa den astekoan. Isla Plazan hainbat jokotan aritu ziren egoitza bandera jarri ostean.

Ostiral goizean ibilbide osasungarria egitekoak ziren baina eguraldi txarra tarteko

beste baterako utzi behar izan zuten. Arratsaldean kultur etxean izan zuten hitzordua, eta gogotik gozatu zuten 'La verdadera historia de Romeo y Julieta' antzezlanarekin.

Bezperan egin ezin izan zuten paseoa larunbat goizean eman zuten, martxa erregulatuan. Hainbat bikotek hartu zuten parte eguraldi paregabeak animatuta. Arratsaldean berriz, dantza lehiaketa egin zuten Biyak Bat egoitzan.

Atzo Michelingo frontoian bapo bazkaldu zuten 400 bat jatun inguruk eta gustura aritu ziren dantzan gero, Ibai Berriak taldearen abestien erritmora.

## Herriko batzokiak 25 urte bete ditu

**E**AJ alderdiko kide, politikari eta buruzagiek ekitaldi xumea egin zuten larunbatean Pablo Mutiozabal kalean, Lasarte-Oriako batzokiak mende laurdena bete duela ospatzeko.

Ospakizunak ikurrinaren altxatze sinbolikoarekin hasi zituzten. Horren ostean, Juan Mari Alkorta herriko Jadanik zenduta dauden militante jeltzaleak gogoratu. Era berean, adierazi zuten aurrera jarraitzeko konpromisoa duela herriko EAJK.

Alkortaren hitzen ostean Gipuzkoako Buru Batzarako lehendakari Joseba Egibarrek hartu zuten hitza. Batzoki berriaren sorreraren garaiek ekarri zituen gogora, eta 25



Omenaldia jaso zuten Kalisto Maritxalar eta Joxe Ramon Gerrickagoitia militanteek.

zenbakia erabili zuen urte kopuru horretan EAJK burutako lanari buruz jarduteko. Hizketan ari ziren bitartean pertsona batzuk agertu ziren afixa batekin jeltzaleen zenbait jarrera politiko salatuz.

Ekitaldiak aurrera jarraitu zuen eta Kalisto Maritxalar eta Joxe Ramon Gerrickagoitia militante historikoak omendu zituen EAJK, mahai baten bueltan bildu eta mokadutxo bat dastatu aurretik.

## Jalgi berriz ere martxan



**T**takun kultur elkartearena den Jalgi Kafe Antzokiak berriz ere zabaldu zituen atea ostegunean, bi hilabete etenaldiaren ostean. Hainbat berrikuntza egin dira lokalean eta aurrerantzean kudeatzaile berria izango du.

Pintxo-potearekin zabaldu zituen ateak eta jende andana hurbildu zen. Ibilbide berriari hasiera emateko, Unai Muñoz eta Patxi Etxeberria aritu ziren bertsoetan eta Xumela koruko kideek bi abesti eskaini zituzten.



# Baratzean murgiltzeko pausoak

'Bizi baratzea. Garaian garaikoa garaiz' liburuaren aurkezpena izango da Lasarte-Orian

Asteazkenean, urriaren 7an, Jakoba Errekondo usurbildarrak bere azken liburua aurkeztuko du Manuel Lekuona kultur etxean, 19:00etatik aurrera. Urriaren 17an antolatu den Euskal Jaia eta TopaEgunaren aurrekarietako bat dugu. Arrakasta handia izan du liburuak, dagoeneko 3. argitalpena du eta asteazkenean horren zergatia ezagutu ahalko dute Manuel Lekuonara hurbildutakoek.

## TXINTXARRI

Azken urtean, baratzea modan dago eta horren erakusle Jakoba Errekondoren 'Bizi baratzea. Garaian garaikoa garaiz' liburuak izan duen harrera. Apirilean argitaratu zuen usurbildarrak bere azken liburua eta 3. argitalpena egin behar izan du Argia aldizkariak.

"Jendeak baratzea jarri nahi du etxean, balkoian, terrazatan, herriek ere lursailak uzten dituzte baratzak egiteko. Krisiak lagundu du... Eta jendea ere arduratuta dago elikadurarekin, zer bizi modu kalitate daukagun, zer nolako lurra uzten ari garen, kutsadu-

ra... azkenean guzti horrek ekarri du baratzaren bolada hori. Eta guzti horrek ere lagundu du liburuaren zabal-kundean", aipatu digu Jakoba Errekondok.

Urteak dira Jakoba Errekondo paisajistak Euskal Herriko hainbat hedabidetan landareen munduaren berri ematen duela. Baratzezaintzari buruzko jakintza hori guztia bildu eta 'Bizi Baratztea. Garaian garaikoa garaiz' liburu idatzi du. Asteazkenean, Lasarte-Orian aurkeztuko du. Hitzordua Manuel Lekuona arratsaldeko 19:00etan da.

**Hizkuntza eta egokitzapena**  
Egilearen hitzetan liburu



Jakoba Errekondo liburuaren aurkezpen egunean.

ARGIA

berezia da batetik hizkuntzarenengatik. "Arazo handia da ze zortzi hitz ditugu gauza bati deitzeko. Beste hizkuntza batzuetan normalizatuta dagoena hemen falta da. Horregatik liburuak atzean hiztegi bat dauka".

Bestetik Euskal Herriari egokitutakoa liburu da. "Beste hizkuntzakoak haien lurraldeetara egokituak daude eta guk askotan frantsesez

edo gaztelerako gauzak irakurtzen ditugunean mediterraneoko baldintzetako gauzak dira eta ez hona egokitutakoak. Eta hori oso garrantzitsua da egutegiaren aldetik zein lan egin behar diren, hauen zekuentzia etab".

Irakurterraza dela ere onartu du "oso zatitua dago, maketazioa asko landu dugu, argazki pila dago. Bestetik

gauza asko azaltzen dira, ez da bakarrik letxuga noiz ere in edo bildu, baratza mundu zabal bat dela adierazteko, baita mundu askotarako ataria dela esateko. Horregatik daude, olerkiak, bertsoak, argazkiak...".

## Arrakasta

Arestian aipatu legez, arrakasta handia izan du liburuak. Jakobak onartu duenez, "espero nuen arrakasta pixka bat izatea, jendearen eska handia zen. Baina izaten ari dena ez. Egia esan hainbeste lana hartu eta gero eskertzekoa da gustukoa izatea eta jendearen esker on hori izatea".

Lasarte-Orian ere berotasun hori sentitzea espero du. Gainera, liburua aurkezteaz gain, herritarren zalantzak ere argituko dituela jakitera eman digu Jakobak.

Beraz, baratzea jarri edo landu nahi duenak ez galdu aukera. Asteazkenean, Manuel Lekuona kultur etxera gerturatu.

## ERAIKIN BERRIA SALMENTAN, SOILIK

2 ETA 3 LOGELATAKO 14 ETXEZITZA. SANTA BARBARA ALDEA BISTA EZIN HOBEAK. ZONA BERDEAZ INGURATUTA.

# 189.000€

+ BEZ-TIK AURRERA

DONOSTITIK SEI MINUTUTAN!

residencial  
**zabaleta (berri)**  
bizigunea

## INFORMAZIOA



# 943 368 942

www.zabaletaberri.es



# %80A SALDUTA 1GO FASEAN

Eraiki aurreko merkaturatze sustapena. Informazio hau alda daiteke arrazoi tekniko edo komertzialengatik. Interesdunen eskura dago gure bulegoetan iragarki honetan ez dagoen gainerako informazio guztia, 515/89 Errege Dekretuak, apirilaren 21ekoak, eskatzen duena.

Kutxabankek finantzatuta





## ARETO-FUTBOLA.-

## Txanponaren bi aldeak Ostadarrentzat

Garaipen bat eta porrot bat erdietsi zituzten areto-futboleko senior talde federatuek

Ostadarren senior mailako bi areto-futboleko talde federatuek larunbatean ekin zioten denboraldiari. Lidergotza eskuratuz hasi du ibilbidea Gipuzkoako 2. mailan Cecilia Ostadar taldeak, Anoeta FT 6-1 mendean hartuz erakustaldia emanda. Txanponaren beste aldea ikusi zuten 3. Nazionaleko Ostadar Antonioko jokalariek, eta porrot mingarria jaso zuten, Elorrioko Buskantzaren aurka 1-9 galduta. Gogotik saiatu arren, bizkaitarrak nagusi izan ziren Lasarte-Oriako kiroldegian.

## TXINTXARRI

Larunbatean arratsaldeko lauetan kiroldegira joateko hautua egin zutenak ez ziren damutu, ezta gutxiagorik ere. Erakustaldia eman zuen Cecilia Fruta Denda Kebab Lasarte Ostadar taldeak. Ez zion inolako aukerarik eman Anoeta FT taldeari eta Gipuzkoako 2. mailako lidergotza hartu du lehen jardunaldian, 6-1 irabazita. Norgehiagoka oso konzentratuta hasi zuten; intentsitate hori partidu osoan zehar mantentzea lortu zuten eta horrez gain maisuki mugitu zuten baloia alde batetik bestera.

Zortzigarren minutuan ireki zuen markagailua etxeko taldeak, Iñaki Franciscoren golari esker. Emaizta horrekin joan ziren atsedenaldira, nahiz eta

Cecilia Ostadarrek aldea handitzeko hainbat abagune eduki.

Bigarren zatian etorri zen gol-erauntsia. Bosgarren minutuan 2-0ekoa sartu zuen Jose Cevallosek, eta Anoeta FTkoek markagailua estutu bazuen ere ilusio hutsa izan zen, Cecilia Ostadarrek beste lau gol sartu baitzituen norgehiagoka amaitu aurretik. Mikel Escribano, Sergio Pelaez eta Iñaki Franciscok (2) sartu zituzten gol horiek.

## Porrot mingarria

Txanponaren beste aldea ikusi zuten Ostadar Antonio Aroztegi jokalariek larunbatean. Elorrioko Buskantza partidua- ren jaun eta jabe izan zen eta 1-9 garaitu zuen etxeko taldea.

Bi taldeen arteko tartea markagailuak erakusten duena baino murrizagoa da, baina



Cecilia Kebab Lasarte Ostadar taldeak bikain hasi du denboraldia Gipuzkoako 2. mailan.

onartu behar da dezente finago ibili zirela bizkaitarrak eta merezita eraman zituztela hiru puntuak etxera.

Gogotik saiatu ziren etxeko taldeko jokalariek, baina baloia mugitzerako orduan ez ziren fin ibili eta arazoak izan zituzten Elorrioren jokaldi azkarrak moztu ahal izateko.

Dosi txikietan, baina etxekoek erakutsi dute kalitatea eta gogoak badituztela egoerari buelta emateko; txanponaren beste aldea ikusteko.



Ostadar Antonioko jokalariek gogotik saiatu arren saririk gabe geratu ziren.

## SASKIBALOIA.-

## Ostadarreko saskibaloia talde guztiak martxan

Istadar SKTren saskibaloia lortzeko talde guztiak hasi dituzte euren denboraldiak. Errendimenduko Juniorrek hiru jardunaldi daramatzate jada, baina Partizipaziozko Kadete zein Jubenilek eta 3. probintzialeko senior gizonak asteburu honetan ekin diete euren denboraldiei.

Errendimenduko juniorrak hirutik hiru partidu irabazi ditu eta sasoi betean dagoela erakutsi; 42-54 irabazi zuen

Donostiako Bera Beraren kantuan. Errendimenduko kadeteek ere irabazi egin zuten, 29-26, Bera Beraren kontra baita ere. Bikain hasi dute denboraldia Partizipaziozko juniorrek, Bergara 25-53 garaitu ostean.

Partizipaziozko kadeteek dagokienean, 66-33 galdu zuten Iraurgiren kontra eta senior gizonak ere galdu egin zuten Andraitz taldearen kontra, 54-42.



## ERRUGBIA.-

## ZRT Beltzak taldearen garaipen garestia

Prezio garestia ordaindu zuen Euskal Ligako 2. mailako ZRT Beltzak errugbi taldeak puntuak zakuratzeko, Michelinen atzo jokaturako norgehiagokan. 22 eta 5 hartu zuten mendean Gaztedi B taldea, baina Xabi Prieto herritarrak hilabete batzuk pasa beharko ditu jokatu gabe, peronea hautsi baitzuen jokaldi batean.

Prietoz gain, herriko beste zenbait jokalariek ere aritu ziren atzoko norgehiagokan: Beñat Arroyo, Julen Aristorena, David Vega eta Andoni Amonarriz.

ZRT Beltzak taldeak hasieratik ekin zion partidua pisua eramateari, eta hirugarren minutuan erdietsi zuten lehenengo entsegua, 5-0ekoa ezarri markagailuan. Etxekoek bikain kudeatu zuten tartea 80 minutuetan zehar, eta amaieran 22-5ekoa izan zen markagailua. Gauzak horrela, ezin hobeto ekin diote ligari, garaipena erdietsiz lehenengo jardunaldian.



Garaipenarekin ekin dio denboraldiari ZRT Beltzak errugbi taldeak.

Aldageletara joan eta dutxa hartu ostean, bi taldeetako jokalariek hirugarren denbora egin zuten bolatokian. Indarrak berriro zituzten mokadu bat janz eta freskagarriak zein ura edanez.

Bien bitartean, indartsu jarraitzen du Ohorezko B mailako Babyauto Zarautz Beltzak taldeak. Hirutik hiru norgehiagoka irabazi ditu, alde handiz gainera. Asteburu honetako

biktima Valladolideko VRAC Quesos Entrepinares taldea izan zen; 78-0 hartu zuen mendean etxeko taldeak; ez zion aukerarik eman kanpokoari. Zarauzko Asti zelaian neurtu zituzten indarrak bi taldeek larunbatean.

Xabier eta Ander Rekondo anaiek ordezkatu zuten herria norgehiagoka horretan. Hori gutxi izanik, Xabierrek entsegu bat egitea lortu zuen larunbateko partiduan.



## Agenda

Gaur, Semblante Andaluz elkarte, 20:00etan



### Aste Kulturala

Gaurko ohorezko ardoarekin hasiko da Semblante Andaluz elkartearen XIII. aste kulturala. Asteartetik ostegunera karta jokoak izango dira eta asteburu luzera begira, dantza eta musika emanaldiak nagusituko dira. Egun hauetan martxan izango da ere 'Oporrak 2015' gaia hartuta, argazki lehiaketa-erakusketa herrikoia.

MANUEL LEKUONA

Larunbata, 20:00etan

"Mision Imposible: Nacion" filma ikusi ahal izango da. 12 urtetik gorakoentzat. Sarrera 5,50euro.

MANUEL LEKUONA

Igandea, 17:00etan

Haurrentzako zinema saioan "Del Reves" filma ikusi ahal izango da. Sarrera 3,80 euro.

MANUEL LEKUONA

Igandea, 19:30ean

"Mision Imposible: Nacion" filma ikusi ahal izango da helduen zinema atalean. 12 urtetik gorakoentzat. Sarrera 5,50euro.

### Antzerkia

ABEND KAFE-ANTZOKIA

Astelehena 12, 19:00etan

Ramon Agirre eta Inazio Tolosak "Kokakola eta barea" ikuskizuna eskainiko dute. Antzezlanean Ez Dok Amairu euskal kantagintzaren historian mugarri izan den mugimenduari gainera istorioa kontatzen dute Agirre eta Tolosak. Sarrerak 5 eurotan salgai daude aurrez Abend eta Jalgi kafe antzokian. Egunean bertan izango da aukera hauek eskuratzeko.

### Ipuin Kontalaria

MANUEL LEKUONA

Astearte 13, 18:00etan

Pello Añorgarekin ipuin kontaketa izango da haur liburutegian. 4 eta 5 urte arteko haurrei zuzendua. Sarrera irekia da baina umeak bakarrik sartuko dira saiora.

### Lasarte-Oria

#### Hitzaldia

MANUEL LEKUONA

Asteazkena, 19:00etan

Jakoba Errekondo usurbildarrak "Bizi baratzea, garaian garaikoa garaiz" liburuaz hitz egingo du. Arrakasta handia izan du lanak eta dagoeneko liburuaren hirugarren edizioa kalera-tu da. Euskal Jaia eta Topa Egunaren harira antolatutako ekitaldia da.

#### Zaharren Omenaldia

BIYAKBAT

Astelehena

17:30ean, Ipuin kontalaria.

18:30ean, Brigitarren komentuan

Biyak Bateko koruak eta Nagusilan abesbatzaren emanaldia. Doan. Ondoren, 20:00ak aldera, luntxa egingo dute denek egoitzan.

Astearte

17:00etan, Okendo plazan gimnastika erakustaldia, lerroko dantza eta areto dantza emanaldiak eskainiko dituzte jubilatuek.

Asteazkena

17:00etan, Gorka Aginagalde eta Maribel Salasen "Monolocos" antzerkiak gozatu ahal da Manuel Lekuona. Doan.

Osteguna

10:40ean, Biyak Bat egoitzatik irtee-

ra mezara Urrezko ezteiak ospatzen dituzten bikoteekin.

11:00etan, Meza Brigitarren komentuan. Bertan abestuko du egoitzako koruak.

17:00etan, Biyak Baten oroigarri banaketa merienda eta dantzaldia izango dira.

### Zinea

MANUEL LEKUONA

Ostirala, 22:00etan

"Amy Winehouse" abeslariaren inguruko filma jatorrizko bertsioan ikusi ahal izango da Okendo zinema taldeak antolatutako zine forumean. Abeslariaren bizia eta bere gertuko hitzak erakusten ditu. Sarrera 5,50 euro.

## Herritarren txokoa

#### Biyak Bat elkarteko abesbatza zuzendari bila

Biyak Bat erretiratuen elkarteko abesbatzak zuzendaria behar du.

Elkarteko kideek azaldu digutenez, urtariletik aurrera hasiko litzateke lanean zuzendari berria.

Interesa duten pertsonak elkartearekin harremanetan jarri behar dira 943 36 39 64 zenbakian, [biyakbat@gmail.com](mailto:biyakbat@gmail.com) helbide elektronikoan edo egoitzara hurbilduz, Kale Nagusia 40 baxua, astelehenetik ostiralera 10:30etik 12:30era.

#### Alboka Abesbatza

Alboka Abesbatzak 2015-2016 ikasturte berria hasi du eta 15-55 urte bitarteko herritarrak animatu nahi ditu parte hartzera.

Astelehen eta ostegun guztietan 20:00etatik 21:30era entsaiatzen du abesbatzak Arantzazuko Amaren Eliza azpiko lokalean, Zumaburun.

Informazio gehiago jasotzeko idatzi [info@albokaabesbatza.com](mailto:info@albokaabesbatza.com)-era.

#### Moscu-St. Petersburgo-ra irteera


Noaoa Bidaiak hurrengo urterako iada prest du lehenbiziko irteera. Moscu-St. Petersburgora astebete zerbitzu guztiak barne. Apirilak 30 ean irteera eta maiatzak 7an buelta. Lasarte-Oriatik abiatu Loiuako aireportura eta bertan hegazkinez.

Informazio gehiago 943 373 613, [info@noaoabidaiak.com](mailto:info@noaoabidaiak.com), edota ofizinarara hurbilduz Hipodromo etorbidia 10.

#### Inauteriak prestatzeko bilera

Gazteria eta Jaiak Departamentuak dei egiten die aurreko urteetan parte hartu duten konpartsetako kideei datorren urteko inauteriak antolatzen hasteko lehenengo bilerara. Ostegunean izango da hau, urriak 8, 18:30ean Manuel Lekuonan.

## Sarean



### Ostadarskt.eus

Herriko kirol taldeak webgune berritua du martxan, [ostadarskt.eus](http://ostadarskt.eus). Imanol Bardaji presidentek esan bezala aspaldiko asmoa zen webgune zaharrari beste itxura bat ematearena. Sare sozialetan presentzia gero eta handiagoa izan da ere eta horrekin batera beharrezkoa zen erabiltzaile eta jarraitzaileentzat tresna berriago bat jartzea sarean.

Kirol bakoitzak bere atala du eta albisteentzako tartea ere badago. Horretaz gain, urtean zehar egiten diren porrentzat ere tartea utzi dute.

Krosak espazio berezitua du baita honen babesleek ere eta argazki bildumak. Azken honetan, aurreko edizioeko sailkapen eta argazki guztiak ikus daitezke.

**Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:**

Geltoki kalea, 4 943 366858 [txintxarri@txintxarri.info](mailto:txintxarri@txintxarri.info)



Jasone Mendizabal Euskaltzaleen Topaguneko zuzendaria

# “Elkarri ilusioa kutsatzeko jaia da”

Topaguneak eta Ttakun elkarteak Topa Eguna antolatu dute urriaren 17an

*Topa Eguna ospatuko da urriaren 17an Euskal Jaiarekin batera. Euskal Herriko euskara elkarte ezberdinetako jendea batuko da Lasarte-Orian euskararen alde egiten duten lana elkar banatu eta ezagutzera emateko. Euskaltzaleen Topaguneak eta Ttakun Kultur elkarteak elkarrekin antolatu duten egitaraua.*

TXINTXARRI

Jasone Mendizabal arrasatearra dugu 2001 urtetik Euskaltzaleen Topaguneko zuzendaria. Harekin bildu gara elkarteari buruz eta Topa Egunari buruz mintzatzeko.

## Zer da Euskaltzaleen Topagunea?

Herriz herri saretzen den euskaltzaleen bilgunea da Euskaltzaleen Topagunea. Euskal Herriaren herri zein eskualde mailako 96 euskaltzaleen elkarrekin daude federatuta Topagunean eta 20.000tik gora bazkide batzen ditu; oinarri sozial oso zabala dugu.

1997an eratu zen federazio gisa eta Ttakun elkartearen izan zen Topagunea sortzeko elkarte sustatzaileetako bat. Gure helburua euskararen erabilera gizarte funtzio guztietara zabaltzea da, euskaraz bizi nahi dugunok normaltasunez eta eroso bizi ahal izan gaituzten.

**Zein da gaur egun euskara elkartearen erronka nagusia?** Mugimenduaren baitan ikaragarria izan da azken hiru hamarkadatan sortutakoa, espazio asko euskaldundu ditugu.

Helburua harago joatea da, euskararentzat espazioak sortzeaz gain, eguneroko gizarte bizitzan hizkuntza ohiturak euskararen alde iraultzea dugu helburu.

Horretarako bi erronka aipatuko nituzke: Barrura begira argi dugu elkartearen arteko elkarlana eta bateratasuna indartuta, askoz urrunago heltzeko gai garela. Indarrak bazezan dugu erronka.

Kanpora begira, gizartearen euskararen aldeko giro sozial berritua bultzatu nahi dugu eta besteak beste, euskaraz ez dakitenengana heldu nahi dugu. Historikoki euskaraz ez dakiten euskaltzaleek asko eman dute euskararen alde eta etorkizunera begira ere elkarrekin bidea egitea funtsezkoa izango da.

## Krisia al dago euskara elkarteetan?

Krisirik ote dagoen? Esango nuke krisia gure baitan dagoela etengabe. Gizarte bizitzan eragingo badugu, gizarte garai

berrietako erronkei heltzeko prest egon behar dugu eta horretarako berritze lanean etengabe aritu. Mugimendu moduan gogoeta sakon bat egin dugu orain dela hiruzpau urte eta egiteko berriak jarri dizkiogu gure buruari. Horiei heltzeko egokitze lan sakonean gaude. Krisian gaude? Zorionez bai! Krisirik bizi ez duena ez baita berritzen.

## Ikasturtean zehar hainbat ekimen ere bultzatzen ditu Topaguneak, zeintzuk dira?

Gure jarduera nagusia, elkarte berrien sorrera sustatzeaz gain, egungo elkarte bazkideak indartzera bideratuta dago eta beraien lana errazteko eta eraginkorrak izan daitezen ekimenak bultzatzen ditugu: elkartruckerako foroak, formazioa, ordezkaritza lanak eta proiektu komunak besteak beste.

Mugimendu moduan ikaragarria izan da azken hiru hamarkadatan sortutakoa. Euskararentzat espazio berri asko sortu ditugu herriz herri; 60tik gora tokiko komunikabide kudeatzen ditugu, euskal kulturegintza dinamizatzeko ehunka ekimen antolatzen ditugu urtero, milaka haur eta gazterengana heltzen gara eskolaz kanpoko jardueren bidez, 6.000 mintzalagun edo solaskide batzen dira astero Euskal Herriko bazter ezberdinetan euskaraz mintzatzeko helburuarekin...

Herriz herriko esperientzia arrakastatsuak hedatzen dihardu Topaguneak eta horien osagarri diren ekimen bateratuak antolatzen. Adibiderako, kulturegintzako zirkuitu bateratuak (“Kultur Errota”, “Irakurri Gozatu eta Oparitu” eta “Laburbira”), sentsibilizazio egitasmoak (“Zergatik ez?” tailerrak, “Auzoko” Hizkuntza aniztasuna kudeatzeko harrera egitasmoak), eta beste hainbat. Ekimen bateratu berrienak “Euskarak 365 ekimena” eta Topa Eguna dira. Horiek azpimarratuko nituzke azken urteotako ekimen bateratu gisa.

**Horien artean Topa Eguna aipatu duzu. Zer da Topa Eguna? Zein da helburua?** Euskaltzaleen elkarteetan lana gogoz egiten da urte osoan zehar. Topa Eguna, euskaltza-

leok batu eta topa egiteko eguna da, jairako eta elkarren igurtzirako eguna.

## Nori dago zuzendua Topa Eguna?

Azkoitiako lehen edizioan mugimenduko kideentzako, barrura begirako jaia antolatu genuen. Ondoren jaia irekitzea erabaki genuen eta Soralue eta Derioko Topa Egunak euskaltzale orori irekiak izan dira. Urtero herriz aldatzen dugu eta helburua da mugimenduko euskaltzaleen muina batzeaz gain, harrera egiten digun herriko eta bailarako euskaltzaleek bertan parte hartzea. Aurtengoan Lasarte-Oria inguruko euskaltzaleak batu nahi ditugu jaira.

## Zergatik egiten da? Horrelako ekimenak beharrezkoak al dira?

Mugimenduko euskaltzaleok biltzeko eta elkarri indarra eta ilusioa kutsatzeko beharra sumatu genuen eta hortik sortu genuen Topa Eguna. Behar hori dugun artean Topa Eguna antolatzen jarraituko dugu. Beharrek aldatu ahala, egokitzen jarraituko dugu.

## Aurten Topa Eguna Lasarte-Orian ospatuko da, zergatik?

Topa Egunaren laugarren edizioa izango da aurtengoa. Jai berria da eta honen antolakuntzari heltzeko elkarte bizi eta dinamikoak bilatu ditugu jaia antolatzeko erronkari heltzeko. Ttakun elkartearen jarduna mugimenduarentzat eredu garrira da ikuspegi askotatik, baina bereziki jaiari heltzeko lasartearekin erakutsitako gogo eta grinak bultzatu gaitu Topa Eguna Lasarte-Oriara ekartzera.

## Berezitasunik izango al du laugarren Topa Egun honek?

Lasarte-Oriako Euskal Jaiarekin bat egitea izango da Topa Egunaren jaiko lapikoan sartuko den aurtengo osagai berezia. Lasartearentzat berriz, Topa Eguna izango da Euskal Jaiko lapikoan aurkituko den osagai ezberdina. Bat egite hori izango da finean aurtengo edizioari nortasun berezia emango diona. Zapore hobea lortzekotan prestatu dugu aurtengo Topa Egunaren menua.

## Zer nolako ekintzak egoten dira Topa Egunean?

Lasarte-Oriako inguruak ezagutzeko bisita gidatuarekin hasiko dugu eguna eta kale jirarekin jarraituko dugu goizean. Topagunearen baitako elkar-

teen esperientzia arrakastatsuak ezagutzeko “Truke gunea” ere antolatu dugu, horixe izango da areto barruan egingo dugun ekintza bakarra. Hortik gora, bazkari herrikoia, Irrien Lagunekin ikuskizun parte hartzailea, erromeria... Egun osoko egitaraua izango dugu elkarrekin jaiaz gozatzeko.

## Baina euskara elkarteetako kideez gain, herritarrek ere parte hartzeko aukera izango dute, ezta?

Esan bezala, jai irekia da Topa Eguna, euskaltzale orori irekia eta aurtengoan bereziki Lasarte-Oria eta inguruko herrietako euskaltzale jendearekin ospatu nahi dugu egun hau.

Gonbidapen berezia luzatzen diegu Andoain, Hernani, Usurbil, Donostia, Urnieta eta inguruko herri guztietako euskaltzaleei.

## Topa Egunaren aurretik ere ekintzak egingo dira Lasarte-Orian, giroa berotzen joateko...

Urriaren 12an, astelehenarekin, Ramon Agirre eta Inazio Tolosak “Kokakola eta barea” ikuskizuna eskainiko dute Abend Garagardotegian. Antzezlanean Ez Dok Amairu euskal kantagintzaren historian mugarri izan den mugimenduaren gaineko istorioa kontatuko dute.

Urriaren 14rako, arratsaldeko 18.30ean hasita, mahai ingurua antolatu dugu Villa Mirentxun. Topalabea taldeak osatutako eta maiatzean argitaratu den “Berrikasi eta berrikusi” dokumentua izango da aztergaia mahai inguruan, eta saio honekin ekingo zaio hurrengo asteetan Euskal Herriko hainbat eskualdetan antolatutako hitzaldietara.

mahai-inguru zikloari. Euskararen iraganari buruzko irakurketa egin eta etorkizunerako proposamenak mahaigaineratu eta eztabaidatzea izango dira saioaren helburu nagusiak.

Mahai inguruan lau lagunek parte hartu dugu. Nirekin batera, Iñaki Martinez de Lunak parte hartuko du eta Lasarte-Oriako bi lagun ere izan ditugu mahaian. Soziolinguistika Klusterreko kide den Pablo Suberbiola, eta Udaleko euskara teknikaria den Iñaki Arruti. Eztabaida ahalik eta aberats eta biziena eskaintzea izango da gure helburua.

## Orokorrean, harrera ona izatea espero al duzue?

Ilusioz gatoz Lasarte-Oriara, lasarteoriarrekin batera gozatzeko gogoz eta Lasarte-Oriako Euskal Jaiean murgiltzeko prest. Euskal Herriko bazter guztietatik hurbilduko gara Lasarte-Oriara eta harrera beroa espero dugu bai Ttakuneko kideen aldetik eta baita herritarren aldetik ere.

## Zer esango zenieke herritarrei edo Topagunearekin loturatik ez dutenei Topa Eguneko ekintzetara hurbil daitezen?

Lasarte-Oriako herriak borondate argi bat erakutsi du azken hamarkadatan bere etorkizuna euskalduntzeko. Herri bizi bizia dela somatzen dugu eta jai giroak abagune aproposa eskainiko digulakoan gaude, bai elkar ezagutzeko eta baita jai giroan euskararen alde elkarrekin topa egiteko ere. Euskal jaiaz gozatzeko dugu Euskal Herriko euskaltzaleok eta Topa Egunaren proposamenarekin Lasarte-Oria eta bailarako euskaltzaleek ere gozatzeko dutela ziur gaude. Aukera hau baliatzen dut bailarako euskaltzale guztiak prestatu dugun egitarauaz gozatzera hurbildu daitezten.

